

ELIGE TU ESLOGAN POR LOS DERECHOS HUMANOS

Por una política de asilo e inmigración solidaria, basada en el respeto a los Derechos Humanos

El 28 de abril elecciones generales, el 26 de mayo se celebrarán elecciones europeas, municipales y forales.

A la vista de los discursos de las corrientes xenófobas, que tienen amplio predicamento en la mayoría de países de la UE, también comienzan a asentarse en nuestro país, lo que, sin duda, podría afectar en sentido negativo, entre otras, a cuestiones tales como:

1. Las políticas de inmigración y el derecho de asilo y refugio, en las que se acrecentarían los recortes y aumentarían las trabas al acogimiento, tanto en su faceta legal y de respeto a los tratados internacionales de los que los Estados de la Unión Europea son signatarios, como en la faceta solidaria y humanitaria. Endurecimiento de las políticas de inmigración y extranjería: entrada en los países, estancia, reagrupaciones familiares, expulsiones...
2. El incremento de la discriminaciones vía la aplicación de políticas de prioridad o preferencia nacional, que reforzarían la exclusión de una parte de los derechos laborales y sociales actualmente reconocidos, bien a la población extranjera en general, o a partes concretas de ella: acceso al trabajo, a las prestaciones sociales, a la educación, a la sanidad, o a la participación política.
3. El reforzamiento de la alterofobia, aumentando la confrontación entre “nosotros” y “ellos”, los “nuestros” contra los “otros”, los “autóctonos”, es decir, los que vinieron antes, contra los que han venido más tarde, inmigrantes en general o determinadas categorías concretas de inmigrantes o de minorías.
4. El reforzamiento del autoritarismo de los poderes públicos, siguiendo el modelo de las democracias iliberales y autoritarias de Hungría y Polonia, que recusan la división de poderes constitutiva de las democracias que funcionan en Europa y recortan, por diferentes medios, la libertad de expresión. Vaciado de la democracia desde dentro, rechazando contrapoderes y organismos intermedios, y reduciendo su contenido a la celebración de elecciones periódicas.

Todo ello representaría un notable retroceso político, social y cultural en el ámbito de los derechos y las libertades democráticas, y reforzaría las posiciones alterofobas e identitarias excluyentes.

Es obvio que el humus también existente en nuestra sociedad, de rumores y prejuicios que llevan a situar a la inmigración como factor de enfrentamiento social, ha de ser confrontado para cerrar la puerta a la expresión política de esas corrientes.

Ante ello:

- **Propugnamos la solidaridad entre las personas, de la que la solidaridad con las personas migrantes forma parte.**
- **Propugnamos el respeto y el reforzamiento del derecho de asilo y refugio.**
- **Rechazamos las políticas de prioridad o preferencia nacional**
- **Propugnamos la aplicación de políticas que, basadas en una buena inserción social, favorezcan la integración en los ámbitos laboral, social, cultural y político.**

- **Rechazamos los recortes en materia de democracia.**
-

Este año, ante las diferentes citas electorales, proponemos también una reflexión sobre las elecciones

cotidianas que por pequeñas que parezcan construyen la sociedad en la que vivimos. Muchas de esas elecciones las impulsa el miedo a lo desconocido. Un miedo heredado, inducido, contagiado que no permite elegir con responsabilidad y suele buscar la culpa en el/la diferente.

Puedes elegir tu actitud ante la vida, puedes elegir en qué tipo de sociedad quieres vivir ...

ELIGE TU ESLOGAN CONTRA EL RACISMO.

HAUTATU ZURE LELOA GIZA ESKUBIDEEN ALDE

Elkartasunezko asilo eta migrazio politiken alde, oinarri Giza Eskubideak izango dituen

Apirilaren 28an hauteskunde orokorrak dira eta maiatzaren 26an udal, foru eta europar hauteskundeak egingo dira.

Korrante xenofoboak diskurtsoei so eginda, eta ikusirik Europako Batasunean entzute zabala dutela, pentsatzekoa da gure herrian ere lekua egin dezaketela; horrek eragin negatiboak izan ditzake, hala nola, honako arloetan:

- 1.** Immigrazio politikak eta asilo eta babes eskubideak, zeinetan murrizketak ugarituko liratekeen eta babes ematea zaildu, hala lege arloan nola Europako Batasuneko Estatuak sinatuta dituzten nazioarteko hitzarmenak betetzerakoan, eta baita arlo solidario eta humanitarioari dagokionean ere: immigrazio eta atzerriartasun politikak gogortzea herrialdeetan sartu eta bertan egon ahal izateko, familien berrelkartzea, kanporatzeak...
- 2.** Nazionalentzako lehenetsun edo lehenetspen politikak erabiliz, atzeritar guztien edo eta haien arteko batzuen aurkako diskriminazioa areagotzea, orain arte onartuak izan dituzten hainbat lan eta gizarte eskubide murriztuz: lan, gizarte prestazio, hezkuntza, osasun eta partehartze politikorako aukerak.
- 3.** Alterofobiaren indartzea, “gure” eta “haien” arteko konfrontazioa areagotuz, “gureak” “besteak” aurka; “bertakoak”, alegia lehenago etorri zirenak, beranduago etorri diren immigrante guztien edo ezaugarri jakin batzuk dituzten etorkinen edo gutxiengoen aurka.
- 4.** Agintaritzaren publikoaren autoritarismoaren indartzea, Hungariako eta Poloniako demokrazia ez liberal eta autoritarioen ereduari jarraiki, zeinek dakarren Europako demokraziek ezaugarri duten botere banaketa ukatzea eta adierazpen askatasuna mugatzea. Finean, demokrazia bere baitatik husten dute, kontra botereak eta tarteko erakundeak ukatuz eta bere edukia mugatzen dute aldian behin egindako hauteskundeetara.

Gertaera hauek denek atzerapen politiko, sozial eta kultural handia adieraziko lukete eskubide eta askatasun demokratikoen arloan, eta jarrera alterofobo eta identitario baztertzailerak indartuko

Gauza jakina da gure gizartean ere badagoela esames eta aurreiritzien halako giro bat, zeinean immigrazioa gizarte gatazka gisa aurkezten den; baina giro horri aurre egin behar zaio, bere adierazpen politikoei atea itxi ahal izateko.

Honen aurrean:

- **Pertsonen arteko elkartasuna defendatzen dugu, zeinaren parte ere baden migranteekiko elkartasuna.**
- **Asilo eta babes eskubideak errespetatzea eta indartzea defendatzen dugu.**
- **Arbuiatzen ditugu nazionalentzako lehentasun edo lehenespen politikak.**
- **Lan, gizarte, kultur eta politika arloetan integrazioa erraztuko duten politikak defendatzen ditugu, oinarrian izango dutelarik gizarteratze egoki bat.**
- **Arbuiatzen dugu demokrazia eskastuko duen egintza oro.**

Aurten hauteskundeetako hitzordu anitzen aurrean, egunerokoan egiten ditugun aukeraketen inguruko gogoetara gonbidatzen dugu, txikiak iruditu arren, bizi garen gizartea eraikitzen dutelako. Ezezagunari beldurra izateak bultzatzen ditu aukeraketa horiek sarritan. Heredatutako beldurra, indusitua eta kutsatua, zeinak ez duen modu arduratsuz aukeratzen laguntzen eta ezberdinaren errua bilatzen duten.

Hautatu zure bizitzarekiko jarrera, bizi zaren gizartea aukeratu dezakezu.

HAUTATU ZURE LELOA ARRAZAKERIAREN KONTRA